

KIROLA: OINARRITIK EUSKARAZ

Lertxundi Del Campo, Koikili

Eusport

Harremanetarako helbide elektronikoa: **koi.eusport@gmail.com**

Arloa: Formakuntza eta eskola kirola

Laburpena: Aurkezpen honen bitartez, egun oro har kirola eta euskararen arteko lotura zein den azaltzen saiatuko naiz, nire kirol ibilbidean izandako eskarmentuaz eta azken 7 urteetako lan esperientziaz baliatuz, Euskal Herriko herrialde ezberdinetan ikusitakoa transmititzen saiatuko da.

Horrela, diagnosi orokor batetik abiatuz, kirol eredu ezberdinak jorratuz eta euskarak eredu bakoitzean duen presentzia azpimarratuz. Horrez gain, oso estrategikoa den kirol irakaskuntza ere aztertuko dut, formala zein informala.

Baina dena ez da analisia izango, izan ere bere interbentzioaren jo muga etorkizunarekin bat egiten du. Hots, baikortasuna eta argi izpiak agerikoak izango dira aurkezpenean zehar, lanean jarraitzeko argudioak asko baitira. Horregatik, argudio horietako batzuk aintzat hartuz, dagoeneko ematen ari diren urratsak nabarmenduko ditut, Bizkaiko errealitatean indar eginez eta bestelako tokietan eraginkorrak izan daitezkeen metodologiak plazaratuz.

Gako-hitzak: Euskara, haurren kirola, kirol hezitzailea, formakuntzako kirola

Esan bezala aurretik aipatu lez, diagnosi azkar bat eta zenbait argi izpi luzatuko ditut, hainbat esperientzietan oinarrituz. Horretarako hurrengo eskema erabiliko dut, gaia kokatzeko, ildo jarraitzeko eta mezua sintetizaturik iristeko.

- 1) Euskararen presentzia kirolean
 - Diagnosi orokorra
 - Ikastolak, eskolak, elkarteak
 - Adin tarteak: hastapena, gaztaroa, heldutasuna

- 2) Kirol ereduak eta hizkuntzaren arteko harremana
 - kirol profesionala
 - errendimenduzko kirola
 - eskola kirola
 - aisia/osasuna ereduak
 - euskararen presentzia eredu ezberdinetan

- 3) Kirol irakaskuntza formalaren garrantzia
 - Kalitatezko materialen beharra
 - Eskariaren araberako eskaintza?
 - Eskaintza eskariaren aurretik. Adibideak
 - Eskaintza elebidun bakarra?
 - Erabaki politikoen beharra

- 4) Hezkuntza formala eta informala elkarren eskutik
 - Eskola kirola eta kirol espezifikoen arteko jauzia
 - Titulaziorik gabeko entrenatzaileen trebakuntza
 - Hizkuntzen arteko aukeraketa edo elkarbizitza?
 - Pertsona elebidunen garrantzia aldaketarako motore gisa

- 5) Praktika onak
 - Sentsibilizazioa, formakuntza, esku hartzea, jarraipena, errekonozimendua

Gaiaren inguruan sakondu nahi izatekotan, hementxe hainbat esteka

<http://www.udaltop.eus/eu/bideoak>

<https://twitter.com/eusport3>

<https://www.facebook.com/EuSport-1679114462336667/>